


## LAN MERKATUA

### BIZTANLERIAREN SAILKAPEN ESTATISTIKOA



### BIZTANLERIAREN SAILKAPEN HONI BURUZKO IRUZKIN BATZUK

- Erabiltzen den lanaren kontzeptua murriztegia: soilik lan merkantila hartzen da kontuan
- Ez-aktiboen taldean egoera desberdinak
- Okupazioari dagokionez definizio zabalegia
- Langabearen definizioa: ez da nahikoa lanik gabe egotea, horrez gain lan egiteko prest egon eta lan bila modu aktibo batean aritu behar da
- Gaurko lan errealitatean egoera berriak: gero eta ugariagoak enplegu, langabezia eta inaktibitate kategorian artean kokatuko genituzkeen lan egoerak
  - Azpienplegua
  - Aldi baterako enpleguak

### LANGABEAREN DEFINIZIOA (LANE)

#### BIZTANLERIA LANGABEA


Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) (OIT) arabera, enplegu bat ez duten eta gaur egun enplegu bila dabiltzan eta lan egiteko prest dauden pertsona guztiak dira.

### Enplegu bila ibiltzea

Aurreko lau asteetan zehar (inkesta egin baino lehen) enplegua bilatzeko kudeaketaren bat egin duten pertsonak.

Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan-eskaera berritzeko izapidea ("kartilla zigilatzea") edo prestakuntza-ikastaroak direla eta enplegu-bulego publikoarekin harremanetan jartzea.

### LAN MERKATUKO FLUXUAK ERREALITATEAN



### INFORMAZIO ITURRIAK

Gauza hauek guztiak kalkulatzeko informazioa behar da (jendearen egoera, jendearen nahiak...).

Informazio horiek lortzeko bide ezberdinak erabiltzen dira:

- **Erroldak:**  
Enplegua bilatzeko sistema instituzionaletan (SEPE-INEM, Lanbide,...) izena emanda duen populazioaren inguruko informazioan oinarritzen bagara, orduan, ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA edukiko dugu.
- **Inkestak:**  
Estatistika institutuek egiten dituztenak (EUSTAT, INE, .....). Hortik lortzen diren datuetan oinarrituta LANGABEZI DATU ESTADISTIKOAK lortzen dira.

### **Lan-merkatuko beste tasa batzuk**

Langabezia-tasa: lan egin nahi dutenen ehuneko zenbatek ez duten lanik egiten.

$$\text{Langabezia-tasa} = (\text{LANGABETUAK} / \text{AKTIBOAK}) * 100$$

A) AKTIBITATE TASA edo jarduera-tasa. Biztanle aktiboek (landunek zein langabeek) lan egiteko adina duten –16 urtetik gorako— biztanleen multzoa osatzen duten ehunekoa.

$$\text{Aktibitate-tasa (AT)} = (\text{Biztanle aktiboak/Lanerako adina duten biztanleak}) * 100$$

Biztanleria aktiboa: lan egiteko adina –16 urtetik gorakoak, gaitasuna eta nahia duten pertsonak osatzen dute.

B) Okupazio-tasa. Lan egiteko adina duten landunen multzoa osatzen duten ehunekoa.

$$\text{Okupazio-tasa (OT)} = (\text{Landunak/lanerako adina dutenak}) * 100$$

### **Langabezia motak**

1. Langabezia frikzionala.
2. Egiturazko langabezia.
3. Langabezia ziklikoa
4. Langabezia estazionala

#### 1.Langabezia frikzionala

Langileen eta lanpostuen arteko egokitzapenak dakarren garaiaren eraginez sortzen da.

Lana bilatzen dute ikasketak bukatzen dituztenek, lana aldatzen dutenek edo lan hobe bilatzen dutenek.

Langabezia mota hau normaltzat eta ezinbestekotzat har daiteke, merkatu ekonomiak ongi eta era dinamikoan funtzionatzen duen seinaleztat, alegia. Beti egongo da.

#### 2. Egiturazko langabezia

Lan-eskariaren eta lan-eskaintzaren artean egokitzapenik ez dagoenean gertatzen da; zehazki, lan-merkatu batzuetan dauden lanpostuak lan egin nahi duten pertsonak baino gutxiago direnean. Prozesuen automatizazioa gertatzen denean azaltzen da (sektore batek lan indar gutxiago behar duenean); jarduerak desagertzen direnean lana desagertzen da.

Nazioartean jarduera bat leku batera lekualdatzen denean beste leku batean desagertzen dira. Globalizazioarekin, aldaketa teknologikoarekin lotuta.

Aurre egiteko epe luzeko politikak behar dira.

Langabezia mota hau eskari-politika hedatzaileen aurrean ez da apenas aldatzen (ez da sentikorra).

#### 3. Langabezia ziklikoa

Ziklo ekonomikoari lotutako langabezia. Epe laburreko langabezia, langabezia keynestarra.

Eskari agregatua enplegu osoko produkzio-mailara (YEO-ra) iristeko nahikoa ez denean sortzen da.

Atzeraldi ekonomikoei lotuta dago. Gastua eta produkzioa YEOren azpitik kokatzen dira.

Krisialdian enpresek lan gutxiago eskatzen dute (langile gutxiago kontratatzen dute, edo zenbait langile kaleratzen dute) eta, horrek langabezia eragiten du.

#### 4. Langabezia estazionala

Urtaroaren arabera langabezia. Klimaren edo urtaro jakin baten menpeko jardueretan gertatzen da. Adibidez, turroiaren industria.

Urteko garaian ezberdinetan lan faktorearen eskaria aldatu egin ohi da, eta horrek garaian garaiko (edo tokian tokiko) langabezia ekar lezake.

#### **Langabezia-tasa, sexuaren eta adinaren arabera**

Oro har, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonezkoena baino.

Era berean, gazteen (16 -24 urte bitartekoen) langabezia-tasa handiagoa da 25-44 urte bitartekoena eta 45 urtetik gorakoena baino.

#### **Zer egin daiteke langabezia murrizteko?**

Epe laburrean, ezinbestekoa da produkzio-maila errealak modu jarraian gora egitea denboran zehar ( $Y \uparrow$ ), enpresarien konfiantza piztea, lanpostuak sor eta eskain ditzaten ( $L \uparrow$ ).

Ziklo ekonomikoaren atzeraldiak ekiditea da helburua, langabezia ziklikoan izango luketen eragin kaltegarria saihesteko; horretarako, eskari-politika (diru-politika zein zerga-politika) hedatzaileak abian jarri eta lan kostuak apal mantendu beharko lirateke.

Epe erdi eta luzean, egiturazko langabezia beharrezko eskaintza-politikak behar dira:

1. Lan-merkatuko doikuntza-mekanismoak murriztea: batez ere, kontratatze (aldi baterako lana, arduraldi partziala edo zatikako lanaldia, prestakuntza edo praktikatzea, eta abar). Prekarietatea handitu eta lanaren kalitatea murriztu.

Bestalde, soldaten bilakaera produktibitatearen eta sektore desberdinetako emaitzen arabera negoziatu behar da, inor lanetik botatzeko kostuak jaitsi, eta zeharkako soldata-kostuak murriztu (enpresek gizarte segurantzari ordaintzen dizkieten kuota txikitu, etab.).

2. Enplegu-politikak, langabeek lanpostu bat aurkitzeko aukera gehiago eta hobekak izan ditzaten:

- autoenplegurako laguntzak ematea
- enplegu publikoa sustatzea
- finantza-laguntzak eta pizgarri fiskalak eskaintzea, enpresak sortzeko
- lanbide heziketaren sistema hobetzea
- lanarekin lotutako informazio-, aholkularitza- eta kolokazio-zerbitzuak indartzea

## ENPLEGU POLITIKEN SAILKAPENA

Lan merkatuko desorekei aurre egiteko neurriak bi multzotan banatzen dira:

- Politika aktiboak: orientazio, lanbide eta lanbide heziketarako zerbitzu eta programen bilduma da langabetuek lana topatzeko aukerak hobetzeko, landunek lanean mantentzeko, landunen igoerak sustatzeko.

Deszentralizatua: Euskal administrazioek + Euskal Enplegu Zerbitzua, LANBIDE

- Politika pasiboak: langabezian dagoenari lan bila ari den bitartean bizi ahal izateko ematen diren diru-laguntzak biltzen ditu (langabezi laguntzak eta erretiro aurreratuengatik ordainketak)..

Espaniar Estatuaren esku: Servicio Público de Empleo Estatal, SEPE

Orain arte politika pasiboek indar handiagoa izan dute. Hala ere, aldatzen ari da.

Hiru ardatz politika aktiboen artean:

1. Prestakuntza politikak: langabetuen edo okupatuen prestakuntza maila hobetzea dute xede.

- Lanerako prestakuntza: langabetuei zuzendua
- Etengabeko prestakuntza: okupatuei zuzendua kualifikazioa hobetzeko

2. Enplegua sustatzeko politikak

- Zenbait kolektiboen (gazteak, emakumeak, diskriminazioaren kontra) kontratazioa sustatuz, nork bere lana sortzea (autoenplegua) sustatuz, enpresa sozialak (kooperatibak edo Lan sozietate anonimoak) garatuz.

3. Orientazio eta enplegu zerbitzuak

- Lana bilatzeko prozesuan aholkua eta laguntza ematen duten zerbitzuak (agentzia publikoak zein pribatuak) langabetuei lanpostuak azkarrago bilatzen lagundu nahi dietenak.

Langabezia mota bakoitzari aurre egiteko politikak:

L. FRIKZIONALA	L. ZIKLIKOA	EGITURAZKO L.	L. ESPAZIONALA
<p>Politika aktiboak: informazioa, orientazioa&gt; bilatzeko prozesuan. Laguntzak kontratatzeko.</p>	<p><b>-Eskari politika hedatzaileak</b> abian jarri. Epe laburrekoak: zerga politika eta moneta politika. Gastu publikoa indartzea, zergak jaistea.</p> <p><b>Politika pasitiboak:</b> prestakuntzak, diru-laguntzak, subsidioak emanaz errenta minimo bat ezartzea langabezian dauden pertsonentzat.</p>	<p>Lan merkatuko goikuntza-organismoak malgutu, eta enplegu-politikak.</p> <p>Jarduera berriak.</p> <p>FORMAKUNTZA PRESTAKUNTZA</p>	<p>Autoenplegua, kontratu mota desberdinak, enpresa berriak sortzea... AKTIBOAK</p> <p>FORMAKUNTZA PRESTAKUNTZA</p>